

## Diptongoa

### Diptongoa

→Silaba berean bi →bokalen elkarke-tari deritzo diptongoa; edo-ta, hobeki, bokal bat, batetik, eta →erdikontsonan-te edo →erdibokal bat, bestetik, elkar-tzeaz sortzen den multzo fonetikoari. Diptongo eta →hiato, beraz, elkarren aur-kakoak dira.

Bi diptongo-mota berez daitezke:

— →goranzkoak = erdikontsonantea + bokala

adibidez: [we], [ja].

— →beheranzkoak = bokala + erdi-bokala

adibidez: [au], [oi].

Diptongoa silaba-erdigune bakoitza da; eta berorren erpina diptongoaren bokala da. →Fonologiaren alorrean, arazo bat izan ohi dute diptongoek, beren inter-pretazioari dagokionez: monofonemati-koa ala bifonematikoak direnez.

Diptongoen sorbideari dagokionez, be-rriz, eskuarki modu hauetara sortu ohi dira normalean:

— bokal luzeetatik, berorien hasiera-ko eta bukaerako tinbreak desberdintzen dituztelarik;

— →kontsonante baten bokalizaziotik;

— edo-ta, hiatotik diptongora igaro-tzetik, sarritan →bokalarteko kontsonan-tearen galeraren ondorioz.

Diptongoak, bestalde, monoptongatu egiten dira sarri:

— beren elementuetan gertatzen den elkar-→asimilazioz;

— erdikoa ez den elementuaren «go-gorketa» edo kontsonantizazioaren on-dorioz.

Hizkuntzen →diakronian barrena, oso maiz gertatu ohi dira monoptongazioak eta diptongazioak.

Artikulazio nasaia duten hizkuntzak (espainiera, ingelesa, adibidez), ugariak izaten dira diptongotan. Hauek, orduan, sailetan gertatu ohi dira; eta ez bakanka. Frantsesak, aldiz, artikulazio trinkoa du; eta ez du diptongorik.

Fenomeno batzuk (→Dieresia, →Sinere-sia eta →Sinalefa delakoak) ez dira, nahi-taez «poetikoak»; askotan, hiatotik dip-tongora pasatzearekin loturik etortzen dira. Edo alderantziz.

Euskararen barruan (ikus Euskal Fo-netika), eskuarki beheranzkoak dira dip-tongoak; eta honetan bertago bide dago euskara hizkuntza germanikoetatik, erro-manikoetatik baino. Zabalduenak hauek dira: [au], [eu], [oi]; eta →aldaera monoptongatuak dituzte Ekialdeko eus-kalkietan.

J. R. Zubiaur

Itz.: Txillardegi

Ik. BOKALA eta HIATOA

### Diskretua

*discreto / discret / discrete*

Elementu kantitatez mugatuek egitu-rzen duten →sistema batetako unitate elka-rren artean desberdinez osaturiko magnitu-deari, *diskretua* deritza. Adibidez, hizkun-tza batetako →morfemak eratzen dituzten →fonemak *unitate diskretuak* dira, fonema-→ordezkapenak morfemaren esanahizko →al-daketa bait dakar, euskarazko /c/ vs /ç/ fonemen →aurkakotasunean ikus daiteke-enez (*atzo* vs *atso*). Era berean, morfemak ere unitate diskretuak dira: *ura edan nuen* perpausuan *ur-en* ordeaz *ardo* jarri, aldatu egiten bait da perpausaren →esanahia. →Esa-kunea ere magnitude diskretua da.

Unitate linguistikoen diskretutasunari zor zaio esakunak segmentatu ahal izatea, hots: magnitude diskretutat hartzen den katea mintzatua maila desberdinetako unitatetan segmentatu ahal izatea. Horregatik, hizkun-tzaren propietaterik oinarrizkoenatarikoa da diskretutasuna →linguistikarentzat, eskola batetik bestera alderik egon daitekeen arren; adibidez, →estruturalismo funtzionalistaren arabera, fonema unitate diskretua da maila fonemikoan, baina ez →intonazio-kurba, seg-mentaetzina bait da maila berean; distribu-zionalismoaren arabera, berriz, morfema desberdinetan lakaingarria da intonazio-kurba.

### Distentsioa

*distensión / détente / release*

→Teinkadura edo katastasiari aurkajarriz, *metastasi* izenaz ere ezagutua, edozein →fo-nemaren artikulazioaren azken fasea da. Une honetan organo artikulatzaileek ebaki den →soinuaren ezaugarri diren lekugu-neak uzten dituzte, dela lasaitzeko edo-ta hurrengo soinuaren artikulaguneak hartzeko.

### Dual

*dual / duel / dual*

→Zenbaki-→kategoriaren →kasu gramati-kal bat da. →Izen kontagarritan bitasuna